

Azkena

Iñigo Erkiaga Ibarra

Julene Azpeitia
37. ipuin lehiaketa
2024 Zumaia



Azkena

Iñigo Erkiaga Ibarra

Julene Azpeitia 37. ipuin lehiaketa

2024

Zumaiako onenaren saria

2024ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Iñigo Erkiaga Ibarra (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Tan, tan, tan, tan, tan... izan zitekeen tantantantantan, edo are bizkorrago oraindik, irakurtzean hizkiak gainjartzerainoko erritmo bizian. Baina ez. Gaurkoan horixe da erritmoa, euria ari du, baina ez hainbeste. Erdi lo zaudenean tanten musika atsegina den neurrian, gehiegizko konpasak sortzen duen antsietate eta ezinegonera iritsi gabe.

Ez du soinuak esnatu, ordea. Usaimena da itzarrik dagoela ohartzeko sumatzen duen lehen zentzumena. Gero nabarituko du euria sabaian kolpeka, edo ohe inprobisatutik ihesi bizkaraldean iltzatutako torlojua. Baliteke egun berriaren kontzientzia hartzearen benetako arrazoia horietako bat izatea, baina lehenbizi usainak iristen zaizkio.

Umel usaina da nagusi. Sarkorra eta astuna. Gela guztia hartzen du, ezin zaio ihes egin. Ez da desatsegina, ezta atsegina ere; hortxe, tartean, mugan. Umel usaina biak izan daiteke eta. Begiak itxiz gero, garbigailuan eseki gabe, ahanzturan, utzitako arropa etor dakiguke gogora. Edo akaso, behe-lainoz jantzitako udazken euritsu bateko baso misteriotsua.

Halako batean, mingots usain erakargarria nabaritu du, lizunkeria iradokitzen dion fragantzia seduktorea. Eta ohartu da, gaurkoan, ohikoa baino goizago esnatu dela. Usain hori betaurrekodun burusoil batek goizero, ordu berean, hutsik egin gabe, sokatik lotuta paseatzen du. Eguna hasteko orduan, alegia. Berdin dio eguzkia, euria ala elurra ari duen. Erloju astronomikoen gisa, egunari hasiera ematen dio paseoan datorren mingots usainak. Batzuetan lo harrapatzen du iratzargailuak, ametsetan, bestetan ernai, esperoan, gogoetarako abagunea eskainiz.

Pentsamenduen dantza horietan, askotan, pena sentitu izan du, garai batean batez ere. Goizero ordu berean soka lepotik daramala ibiltzea bere bizimoduaren antagonia dela iruditzen zaio, askatasun ezaren adibide gorena. Beti jabearen aginduetara. Azkenaldian, ordea, pentsaera horri beste buelta bat eman dio. Agian oker dago. Agian sokak engainatu egiten du, eta baliteke alderantziz izatea. Izan ere, lepotik lotuta egon arren, bera da aurretik doana, eta,

beraz, atzetik datorren jabeari tiratzen diona. Eta ideia horri segika, ongi pentsatuz gero, nor da noren menpe bizi dena? Jabea ez al da menpekoago bizi? Nork baldintzatzen du bere bizitza bestearen mesedetan? Agian, azken finean, jabea ez da hain jabea.

Burutazioak burutazio, bizitoki duen gordelekutik kalera irten, eta pentsakor, inguruaz aztertu du. Bere buruaren baitan biratu eta instant bat lehenago pasatu den mingots usainaren arrastoak dastatu ditu lehenbizi, eta jarraian bi aldeak usnatu ditu, eskuina aurreneko, eta ezkerreko ondoren. Eskuinaldean kresal usaina nabaritu ohi du. Asko, gutxi edo batere ez. Asko nabaritzen duenean hobe ez hurbiltzea, ondotxo daki. Behinola, usainak tira eginda lasterka hurbildu eta zanbuila egin zuen zuzenean. Baina, egun hartan, itsasoa harro zegoen, harroegi. Orditik bitan pentsatzen du uretara sartu aurretik. Tarteka kresal usainaz gain, leku berean beste usain berezi bat ere igarri izan du. Hasieran lurrin atsegina izan arren, ondorengo egunetan ezatsegin izatera iristen dena. Alfonbra gorri bat topatzen du egun horietan usainari jarraitzean, eta atsegin du. Jolastea gehiago maite zuenean maizago probesten zituen egun horiek. Egundatik bestera dena desagertzen zen arte.

Ezkerraldera usain egin du orduan, eta ez du ezer berezia nabaritu. Baina gose da eta handik jota errazago izango du sabela betetzea.

Aterik da dagoeneko eta kale estuan aurrera dihardu. Fabrikak ditu albo banatan, gehienak abandonatuak. Umel eta burdin usainaren nahasteak kale osoan atzetik jarraitzen du, eguzki izpiak ere ozta-ozta sartzen diren kale heze, isil eta luzean.

Grasa usain eta motor soinuak kalea amaitzen ari dela abisatzen dio. Bertan dago bizikletak eta orotariko motorrak konpontzeko tokia. Askotan jende asko egoten da ilaran. Haurrak euren bizikletekin batez ere, baina motozerradun gizonak ere ikus daitezke. Gaurkoan ez dago inor, itxia dago oraindik, nahiz eta motor hotsa entzun daitekeen barrenetik.

Bizpahiru urrats egin ondoren, ezkerraldeetik aldapan beheara arrain usain sendoa dator, erasokor, haize ufada baillitza. Noizbehinka hartu izan du aldapan gorako bidea, eta arrainkiren bat dastatu ere bai. Oraingoan entzungor egin eta aurrera jarraitu du. Eta iritsi da zuhaitzez beteriko parkera. Gogoko du parke hau, berdea da eta egonaldi luzeak egin ohi ditu. Iturri zuriaren aurretik pasatzean

egarri dela sentitu du. Eta txorrotaren botoia nork sakatuko zain geratu da. Jesarrita lurreko harrizko harlauzak hotz nabari ditu, eguzkiak ez du indar askorik egin oraindik. Azkenean, itxaronaldia ez da hain luzea izan eta ogi bila joan den batek pasatzean botoia sakatu du. Geratu ere egin gabe. Botoia sakatu eta aurrera. Beti ez da beharrezkoa zerbait esatea. Urak sekulako burdin zaporea daukala iruditu izan zaio beti, batzuentzat arkatz zaporea, odolarena besteentzat. Berari bere lo lekuko makinen usaina datorkio gogora.

Zintzurra bustita, bideari ekin dio. Berehala ohartu da bezperan azoka izan zela, errepide bazterretan janari hondarrak baitaude oraindik. Fruta piezak topatzen ditu batez ere, baina gozoak eta ozpinetakoak ere bai tartean. Bira osoa eman dio plazari arrasto eta hondakinei segika, sigi-saga, sugea bezala alderik alde. Eta bidean zehar ondotxo identifikatuak dituen bi puntuak ere topatu ditu. Batean animalia zirinak eta pentsu usaina; eta bestean animalia baten burmuina diruditen meloien barreneko hazien moltsoa.

Hasierako puntura itzuli da berriro, mastekatu baino miazkatu gehiago egin duen sentazioarekin, nahiz eta apur hori tripa-zorriak akabatzeko nahikoa izan den. Gosea pasatzera ohitua egoteak baditu bere alde onak, bueno, gosea pasatzera ohitzea posible bada, behintzat.

Gosariaren ostean paseatzeko ordua hasten da, eguneroko errutina. Egunari orduak lapurtzeko helmugarik gabe ibiltzea baino modu hobetik ez dago. Helmugarik eza ez da noraezaren sinonimo, ordea. Oraingoan ere, aspaldian bezala, ibaiertza harrapatu du itsaso usainari segika. Utikan hondartzara daraman aldapa, urteekin geroz eta nagi handiagoa ematen dio; eta zuhaitzen artean hasi eta luze-luze-motz-motz diharduen itsasargirainoko paseoari ere geroz eta grazia gutxiago topatzen dio. Aspergarria iritzi zaio.

Ibaiertzean, lehenbizi, uretara sarrera egiten duen aldapatxoan behera joan da. Bainua hartzeko leku paregabea da, itsasoko arriskuetatik urrun sartu-irtena egiteko ideala. Halere, ez da beti ongietorria, bero gehien egiten duen egunetan haurrek inbaditzen baitute bainu-lekua. Gaurkoan ez da igeri egitera iritsi, oinak busti dituelarik ez du aurrera egin, aldapak ahalbidetzen duen sakonera aldaketan jolasean dabilzan arrainei begira geratu da. Ibaian ikusezin zaizkion korrokoiak hankartean dabilzkie olgetan.

Urak hoztu aurretik, buelta erdia eman, aldapatxoa igo eta badoa

ibaiertzetik. Pauso makalez ezkerretara duen uraren etengabeko joanari begira doa. Atentziora ematen dio, goraka batzuetan, beheraka bestetan. Hemen ere kresal usaina dabil airean, baina ez da aurrekoa bezalakoa. Diferentea da. Zikinagoa.

Askotan, ibaiertza urik gabe egon ohi da eta kiratsa darion lohia ikus daiteke. Lohiaren inguruan beste mundu bat dago, beste bizitza batzuk daude, bere mundukoak iruditzen ez zaizkionak, eta bertan ikusten dituen animaliek beldurra ematen diote. Batez ere, paretan gora eta behera alboz ibiltzen diren zortzi hankakoek eta buztan luzedun lau hankakoek. Goitik, leku segurutik egon ohi da begira, eta ez du ulertzen ura besterik ikusten ez denean non sartzen diren. Ur azpian biziko ote dira? Edo beste norabait joango dira? Auskalo! Bazuen lagun bat itsasbeheran piztia horien atzetik lasterka joaten zena, ero moduan harrapatzera. Gehienetan, esku-hutsik eta zikin-zikin eginda itzultzen zen.

Pauso makalean joan arren, ohartzerako, parez pare dauka ur gainean igeri dagoen kolorezko barkua. Mosaikoa osatzen duten motora eta batelen artean nabarmena da. Handia. Behinola joan etorri gehiago egiten zituen, baina denbora da ez dela mugitzen. Orain, kaiok dira eskifaia bakarra kolorea galtzen ari den ontzian. Begiak itxi eta indar eginez gero, gasolio eta arrain usainaren zantzuak sentitu ditzake oraindik, iraganean izandako Gloriaren azken arrastoak.

Arrasto horiek sentitu izan ditu ibaiertza alboan utzi, errepidea gurutzatu eta parean eserita topatzen dituen gizonetan. Janari usain ederra darion eraikinaren magalean jesartzen dira egunero-egunero, etxeak itsatsia duen banku luzean. Zain-zain izaten ditu, gaurkoan, ibaiertzean zebilela jada begira zituen, ezer esan gabe deika. Eguneroko bisita gustuko dutela ezkutatzuz. Hamarkada luzeetan zizelkatutako azal gogorrean pitzadurarik erakutsi nahi izan gabe. Orduak pasatzen dituzte egonean, eserlekuan bermatuta, ezerezari begira, izandako garai ustetan hobeak gogoratzen. Egunetik egunera garai horiek gogoratzea nekezago zaien arren. Esku lakarrak dituzte, zailduak, azalean lastan egiten diotenean igartzen du. Eta usaina. Itsasoaren gazia azalean pegatuta geratuko balitz bezalako usaina da, ondua, aspaldikoa. Batzuetan, asko elkartzen direnean, zarata, orroak, adarjotzeak eta barreak aire ibiltzen dituzte ahoz aho. Gaur, gehienetan bezala, isiltasuna da nagusi. Hitz-aspertuak eta eguneroko errutinazko komentarioak, gehiago ez.

Eserlekuaren ertzari iskin egin eta ezkerretara amaiera ikusten ez zaion kale luzea hasten da. Zergatia ulertu ez arren, kale hau sorpresaz beterik egon ohi da. Askotan auto eta kamioiak ibiltzen dira jende artean aurrera-atzera, batez ere, goiz partean. Eta noski, badaezpada, kontuz ibili behar. Baina batzuetan justu kontrakoa ere gertatzen zaio, ez du inor gurutzatzen, basamorturik urrunenean bezala arimarik ere ez da ageri. Une horietan kalea alderik alde, makal-makal, igarotzen du, detektibeen antzera bazter guztiak aztertzen eta marka guztiak estudiatzen. Eta gutxitan bada ere, tarteka, oraindik ere egoera arraroagoarekin topatzen da. Kalea jendez lepo, mukuru, aurkitzen du, hainbestekoa izaten da bi hankadun izaki saldoa ezen ezinezkoa baitzaio aurrera egitea. Horrelako kasuetan hobe buelta erdia ematea inondik ere.

Gaurkoan kamioiak dabilzan arren, dena lasai antzean dagoela dirudi, ez da desertua, baina trankil egin dezake aurrera. Pauso geldoan doa, parean aurkitzen dituen usainak dastatuz, paper-dendako egunkariena nola, tabernetako pintxoena hala. Berrehun urrats eman ostean, beno berrehun, laurehun edo zortziehun, segun eta nola zenbatzen diren, kale horretatik igarotzen den bakoitzean ezinbesteko geldialdia egiten duen puntura iritsi da. Eraikin zahar bat da, eta beheko pisuan gozotegi bat dago. Badirudi edozein gozotegi izan daitekeela, baina ez. Bereziak dira bertako gozoak. Biribil marroiak ditu gogokoen, kanpotik azukrea eta barruan krema dutenak. Behin, karamelu gorri-gorria eman zion bertakoak, kolpera ahoan sartu eta hagineta itsatsita geratu zitzaion dendariak barre egiten zion bitartean, egunetan izan zuen karamelua hortzartean kola bezain itsaskor. Lehen ate aurrean geratzen zen zain, tarteka, atea irekita topatuz gero barruraino ere sartzen zen, lotsagabe. Baina egun batean bertako emakumeak litxarreriak jatea ez zitzaiola komeni esan zion, itsu geratuko zela. Eta kito. Akabo. Halere dendara hurbiltzen jarraitu zuen, eta halako batean, atzeko atetik pastelero jaunak ezkutuka pasteltxo bat eman zion. Orduetik estraperloan aritzen dira. Atzeko kale kantoian biltegiko atea harramazkatu eta pasteleroak gertu izaten ditu bezperako pasteltxoak.

Azukre dosiak ematen duen indar eta eszitazioarekin pauso motelak bizkortu egin ditu. Baina ez dio asko iraun. Berehala iritsi da ahateen putzura. Zazpi dira anadeak, marroi antzekoak gehienak, bat izan ezik, bat zuri-zuria da, eta hesitutako putzuan bizi dira. Preso edo. Badirudi hor sartu dituztela eta ezin direla inora joan, baina hesiak ez du altuera handia, eta ahateek hegoak dituzte.

Petrilean igota, amonaren besoen babesean, haur bat dago gusanitoak botatzen. Agian ez dute atera nahi. Irten nahi ez duen preso, preso ote dagoen pentsatuz, geratu ere egin gabe aurrera jarraitu du, zuzen.

Aurrera joan ahala, airean geroz eta usain ezberdin gehiago hasi da nabaritzen. Asko. Gehiegi. Usainen errepidean sartu da: pixoihalak, arrainen tripak, txokolate beroa, gonbitoak, izerdia, autoen kea... Batzuk gertu sumatzen ditu, beste batzuk urrunago, baina distantzia ez da oztopo. Pisua hartuz doa usaina. Baina ez da bat-batean sekulako kolpea ematen dizun usain astuna. Hau da, norbaiten atzetik komunera sartzan hasi eta barrutik datorren kiratsaren bafadak kolpatzen zaituen horietakoa. Kasu honetan pixkanaka handitzen da, eta ia ohartu gabe geroz eta zama gehiago nabari duzu sudurzuloetan. Izan ere usainek pisua dute, materia den guztiak bezalaxe.

Eskola aurrera iritsi da dagoeneko. Eskuinaldean dauka hesi beltza eta atzean haur eta nerabe pila. Begira geratu da, izoztuta, barne munduan galduta, denbora geratu balitz bezala. Eta jolastorduko anabasari so lagun zaharren oroitzapenak bata bestearen atzetik etorri zaizkio, diapositiba proiektore zaharren irudiekin gertatzen den antzera. Ikusten ari denak memoriaren kutxa ireki dio. Umeen orotariko taldeek alegia: ume batzuk klonak dirudite, guztiak berdin jantzita antzeko orrazkerarekin; beste batzuk, berriz, justu kontrakoa, batera egonagatik ez dute elkarren antzik, ezberdinen halabeharrezko batuketaren emaitza dela irudi du.

Ikastetxeari begira bere lagunez gogoratzean nostalgiak harrapatu du. Laukote zelebrea osatzen zuten, hauek ere bigarren taldekoak ziren, bakoitza bere etxekoa, halabehararren patua. Jatorri, itxura eta usain zeharo diferentekoak. Bata zeharo mugitua zen, ibaian salto egiten zuen hura, bera ikusteak bakarrik edonor nekatzen zuen; bigarrenaren bereizgarria apetitua zen inondik ere, parean zuen jateko guztia barrura, eta askotan jatekoa ez zena ere bai, eskrupulurik gabe; hirugarrena zuen atseginen, lasaia, bera bezalakoa, ikusi ezean bertan zegoen ala ez ezin jakin, inori sekula kalterik egin gabekoa; eta laugarrena bera. Banan banakoak ziren, kaltegabeak, inori minik egiteko gauza ez zirenak. Baina kanpotik bestelako fama zuten. Taldean ibiltzeak ingurua asaldatzen zuen, eta ez ziren ongi etorriak. Jendea beraien presentziarekin mehatxatua sentitzen zen, nahiz eta horretarako motiborik ez egon. Besterik gabe, taldean ibiltzeak, eta gainerakoak bezalakoak ez izateak arriskutsu bilakatzen

zituen. Eta halaxe hartzen zituzten, oihuka eta harrika. Eskolako atezainak ere, erratza eskuan zuela mehatxu eginez, hamaika aldiz jazarri zituen. Asaldatzen zirenak ez ziren konturatzen, baina eurak ziren benetan arriskua sortzen zuten bakarrak. Orain, ostera, hor dagoela ere ez dira ohartu. Inork ez dio jaramonik egin.

Azken urteotan bakarrik geratu da. Egun batetik bestera, eskolako atezaina bezalaxe, uniforme jantzidunak euren atzetik segika hasi ziren. Hasieran ez zuten ulertzen. Eta gero ere ez, baina ulertu ez arren, konturatu ziren harrapatuz gero, ez zirela bueltan etortzen. Autoan sartu eta akabo. Oraindik ez daki nora eta zergatik eraman zituzten bere lagunak. Esaten dute herrialde baten garapen maila bera bezalakoan kopuruan neur daitekeela; bera bezalako asko badaude, herrialde pobrea edo azpigaratua omen da. Sorginen ehiza modernitatearen eta garapenaren izenean beraz. Orain bera bakarrik geratzen da. Ez dauka lagunik, eta denbora luzea igaro da bera bezalakorik ikusi ez duela. Lepokorik gabe alegia.

Zalantzan dago lagunak zenbateraino nabaritzen dituen faltan. Alde batetik, bakardadea aspertua da, orduak luze egiten dira, eta egitekoak azkar amaitzen dira. Ez dago zer norekin komentatu, ez dago norekin haserretu, jolastu, elkarbanatu edo maitatu. Aitzitik, lagunek buruko minak ere ematen dituzte, kezka, konpromisoa, eta hainbatetan auzo-lotsa ere bai. Gainera, bakardadea askatasuna izan daiteke, nahi duzun tokira joan zaitezke inori azalpenik eman gabe. Baina inorekin konpartitzeko graziaz gabe, askatasuna tristura bihurtzeko arriskua ere hor dago. Auskalo.

Irakasleak ezkila jo du, eta badoaz ikasleak barrura. Buila eta eskandalua isiltasunak ordezkatu ditu. Jada ez dago zeri begira geratu, zer usnatu. Baina usainen karririk aurrera jarraitzen du. Eskolari atxiki etxe zahar handi bat dago, eta bertan beldurra ematen duen piztia bat. Edonor sumatzerako begiak atera beharrean eta lerdea dariola korrika hasten da. Eskerrak murrak babesten duen. Halakoetan ez dago argi murrak etxea babesteko den, edo alderantziz, kalekoak piztiarengandik salbu mantentzeko.

Dena dela ere, paretik pasatzean sentitzen den tentsioak merezi du. Ondoan koloretako arrainak dituen putzuekin apaindutako lorategi itxi bat dago, jatetxe bateko lorategia. Leku atsegina, txokolate beroaren lurrinak dotore jantzia.

Dotorezia efimeroa da, ordea, eta txokolate usaina badoa. Gauzarik politenak denbora gutxi irauten dutenak direla esaten dute. Eta badu zentzua. Logelako leihotik itsasoa ikusten duenak, ziurrenik, denborarekin, itsasoari baino kresalak leihoan eragindako herdoilari arreta gehiago jarriko dio.

Txokolatearen gozoari amoniako eta ustel usaina tartekatzen hasi zaio. Lekua irabazten. Usain berezia, nazkagarria bezain erakargarria izan daitekeena. Askotan mugak oso lausoak izaten dira. Atsegina ezatsegin izatetik oso gertu egon daiteke, eta une batean ezin jakin gogoko dugun ala gogaitzen gaituen. Nahasgarria da ongi pentsatzen badugu. Ilunabarra bezala, eguzkia sartu arren argia dagoen une hori zer da, eguna ala gaua?

Gerturatu ahala geroz eta nabariagoa da usainen zopa. Arrainen tripak alde batetik, oliotan bustitako kontserbena bestetik. Erritmoa bizitu du fabrika zaharraren ate handiraino, bertan zintzo geratu den arte. Kamioi bat kargatzen dabilta sarreran eta zirikitutik salda dariola ohartu da, berarengana iristear den errekatxo sortu duen salda. Gaurkoan badirudi lanpetuta daudela eta hemen ere inork ez dio jaramonik egiten. Askotan botatzen dizkiote arrain kondarrak. Oraingoan, baina, kamioitik datorren errekek harrapatu baino lehen ipurdia altxa eta alde egin du kale izkinako kontainerretera. Gainezka dago edukiontzia eta lan askorik egin gabe lurrean pilatutako poltsa beltzetatik mokadua ateratzeko moduan da. Balekoa gaurkoa ere.

Goizeko eurien arrastorik ez da dagoeneko, eguzkia goxo dago, ez du sekulako indarrez jotzen, laztan egiten du. Gustura dago eguzkipean etzanda, kezkarik gabe, lasai, erdi lo, bakean.